


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# Artes Escénicas

## EAU 2022

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

**Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzeko bi galderetako bati erantzun behar diozu.**

**Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.**

**Ez ahaztu azterketa-orri bakoitzean kodea jarri behar duzula.**

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal).

**1. atala. Obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu).**

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
  - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
  - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
  - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
  - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).
- a) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
  - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, egilearen ideia artistikoak (1 puntu).
  - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikan kokatzen den eta garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu).**

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Ikasturtean izan dituzun esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenuten edo nola konponduko zenituzkeen eszenaratzean inplikaturako alderdiak (adibidez, kritikariak aipaturakoak) (1 puntu)

**3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu)**

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

***Este examen tiene TRES partes. En cada parte debes contestar a una de las dos preguntas.***

***En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

La duración del examen es de 90 minutos. Las dos opciones del examen constan de los tres mismos apartados.

**Apartado 1. Comentario y análisis de la obra teatral (4 puntos).**

El comentario y análisis se realizará en función de los aspectos siguientes:

- a) Análisis de las características estilísticas y argumentales de la obra.
  - Género teatral (0,5 puntos).
  - Argumento y conflicto principal que aborda la obra (0,5 puntos).
  - Opinión personal fundamentada en argumentos técnicos sobre la obra analizada (0,5 puntos).
  - Vigencia de tal argumento hoy en día (0,5 puntos).
- b) Situación y caracterización del contexto.
  - Ficha de la obra: autor/a, época, localización geográfica, ideas artísticas del/la autor/a (1 punto).
  - Aspectos socioculturales y estéticos en los que se enmarca la obra analizada, corrientes escénico-artísticas de la época (1 punto).

En el comentario y análisis de la obra escénica se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

**Apartado 2. Comentario de un texto breve sobre teoría o crítica escénica (3 puntos).**

El comentario de texto tendrá como máximo un folio y tratará sobre los siguientes aspectos:

- Identificación de las ideas principales y de las ideas secundarias del texto (1 punto).
- Señalar y explicar algunas palabras o términos técnicos estéticos o de interés que aparecen en el texto (1 punto).
- Basándote en tus propias experiencias desarrolladas durante el curso (y en aquellas obras escénicas vistas) describe cómo resolvisteis o cómo resolverías los diferentes aspectos implicados en la puesta en escena (por ejemplo, los destacados por el/la crítico/a (1 punto)

**Apartado 3. Preguntas sobre Términos Técnicos (3 puntos).**

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

Las respuestas deben ser claras y breves; será suficiente con cinco líneas como máximo para cada una de ellas. Se valorará la corrección terminológica y sintáctica y cada una de ellas se calificará con 0,5 puntos.

**1. ATALA – Iruzkina eta azterketa. Bietako bat aukeratu.** (4 puntu)

- a) Sofokles. *Antigona*.
- b) Jordi Galcerán. *Gronhölms metooda*.

**2. ATALA - Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. Bietako bat aukeratu.** (3 puntu)

- a) Federico García Lorca. *Bernarda Albaren etxea*.
- b) Patxo Telleria. *Pankreas*.

**3. ATALA - Hamabi termino tekniko hauetatik SEIren definizioa eman.** (3 puntu)

- 1. Zapalduaren antzerkia.
- 2. Stanislavski metooda
- 3. Naturalismoa
- 4. Sinbolismoa
- 5. Melodrama
- 6. Maskarada
- 7. Paradisua (edo galeria)
- 8. Pezoia
- 9. Eszena-zuzendaria
- 10. Koreografoa
- 11. Pantalone
- 12. Ekintza-unitatea

**APARTADO 1.- Comentario y análisis. Contesta a una de las dos opciones.** (4 puntos)

- a) Sófocles. *Antígona*.
- b) Jordi Galcerán. *El método Gronhölms*.

**APARTADO 2. Comentario de un texto de teoría o crítica teatral. Contesta a una de las dos opciones.** (3 puntos)

- a) Federico García Lorca. *La casa de Bernarda Alba*.
- b) Patxo Telleria. *Páncreas*.

**APARTADO 3.- Definición de SEIS de estos doce términos técnicos.** (3 puntos)

- 1. Teatro del oprimido
- 2. Método Stanislavski
- 3. Naturalismo
- 4. Simbolismo
- 5. Melodrama



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2022ko EZOHAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2022

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

6. Mascarada
7. Paraíso
8. Foso
9. Director/a de escena
10. Coreógrafo/a
11. Pantaleón
12. Unidad de acción

## 1. ATALA. Iruzkina eta analisisia.

### a) Sofokles. *Antigona*.

KREON (*Antigonari*): Eta zuk, aurpegia lurrera okertzen duzun horrek, hori egin izana berretsi ala gezurtatu egiten duzu?

ANTIGONA: Berresten dut, bai; nik egin nuen, eta ez dut ukatzen.

KREON. (*Zaindariari*): Nahi duzun tokira joan zaitezke, jada ez duzu nik egotzitako erruaren pisua.

(*Zaindaria irteten da*).

Baina zuk (*Antigonari*) esadazu labur-labur, luzatu gabe; ba al zenekien hori ez egiteko agindua zegoela?

ANTIGONA: Bai, banekien: nola ez nuen jakingo? Denek dakite hori.

KREON: Eta, hala ere, ausartu al zinen legearen gainetik pasatzen?

ANTIGONA: Ez zidan Zeusek eman agindu hori, eta Dikek ere, lurpeko jainkoen lagunak, ez zuen inoiz horrelako legerik zehaztu gizakien artean. Eta ez nuen uste zure dekretuek indarra izango zutenik baimentzeko gizon batek jainkoen lege idatzi eta aldaezinen gainetik jauzi egitea: lege horien indarraldia ez da ez gaurkoa, ez atzokoa, betikoa baizik, eta inork ez daki noiz agertu ziren. Ez nuen, bada, jainko-jainkosen zigorra erakarriko norbaitek pentsa zezakeenaren beldurrez: jada ikusten nuen, bai, nire heriotza —eta nola ez?—, nahiz eta zuk ezer ez agindu; eta, behar baino lehen hiltzen banaiz, nik esaten dut onuragarria dela: ni bezala hainbeste gaitzen artean bizi denari ez al zaio, bada, mesedegarri heriotza? Eta hala, ez da zoritxarra, niretzat, helmuga hori izatea; eta, aldiz, nire amaren seme baten gorpua hilobiratu gabe balego eta nik jasango banu, hori bai mingarria litzaidake; bestea, ordea, ez zait mingarri gertatzen: baliteke zuri iruditzea nik ero moduan jokatu nuela, baina, gutxi gorabehera, ero bati ematen diot nire erotasunaren berri. KORUA: Ausardia suharra erakutsi du gazteak, aita suhar baten alaba izaki: ez daki zer den zorigaitzari amore ematea.

KREON (*Koruari*): Bai, baina jakizu pentsamendu zorrotzenak direla erortzen lehenak: Izan ere, sutan galdatuta ezin sendoago eta hain gogor bihurtzen den burdina sarritan ikusiko duzu nola pitzatzen den, zartaduraz beteta; ezagutzen ditut ahoko txiki batek menderatu dituen zaldi suharrak; ez dagokio harrokeria bizilagunaren esklabo denari; eta bera primeran ohartzen zen bere harrokeriaz, ezarritako legeak hautsi zituenean; eta, hori egin ondoren, beste harrokeria bat: harropuztea eta poza erakustea hori egiteagatik. Gizona ez naiz ni, benetan, bera da gizona baldin eta, hori eginda, agintearen pisua sentitzen ez badu; baina, nahiz eta nire ahizparen odola izan, nahiz eta nire etxeko buru den Zeus guztia baino are nire odolekoagoa izan, ez berak ez beraren ahizpak ezingo dute ihes egin heriotza lotsagarritik, beraren ahizpari ere leporatzen baitiot ehorzteko erabakian parte hartu izana. (...)

ANTIGONA: Banaukazu: nire heriotzaz besterik behar al duzu?

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

KREON: Nire aldetik, besterik ez; hau edukita, dena daukat.

ANTIGONA: Zeren zain zaude, bada? Niri, zure hitzek ez didate atseginik ematen, eta ez lirateke inoiz iritsiko niri atsegin ematera; eta nireak ere desatseginak zaizkizu. Nolanahi ere, nola lor nezake loria loriatsuagorik nire anaia lurperatuta baino? Horiek guztiek esango lizukete nire ekintza gogoko dutela, beldurrak ahoa itxita atxikiko ez balitu; baina tiraniak badu, beste abantaila askoren artean, nahi duena egin eta esan ahal izatea.

**1. ATALA. Iruzkina eta analisia.**

b) Jordi Galcerán. *Gronhölms metooda*.

(...)

(*Enriquek buruan ditu eskuak oraindik. Oso kezkatuta dirudi.*)

ENRIQUE: Ez dakit.

CARLOS: Zer jartzen zuen paperean?

ENRIQUE: Eskatzen didate... Ez dakit zer egin behar dudan...

MERCEDES: Ez dakizu? Ez duzu ulertu?

ENRIQUE: Bai, ulertu dut.

CARLOS: Eta zer?

ENRIQUE: Tira, saiatuko naiz... saiatuko naiz ondo azaltzen. (*Etenaldi labur bat*) Nik uste dut enpresa batean garrantzitsuena emaitzak lortzea dela eta hori beste ezeren gainetik dagoela.

CARLOS: ETA?

ENRIQUE: Baina, era berean, uste dut enpresa handietan, enpresa onetan, giza dimentsio bat lortzeko ere lan egin behar dela, langileak enpresa horretan lan egiteaz harro egotea lortzeko. Hori uste dut nik. (*Segundo batzuetan, isiltasuna.*)

FERNANDO: Guztiz ados nago. Gainera, enpresa batek langileen ongizatea kontuan hartzen dakienean, emaitza hobeak lortzen dira.

ENRIQUE: Utzi niri bukatzen, mesedez.

FERNANDO: Uste nuen amaitu zenuela eta horri buruz hizketan hasi behar genuela.

ENRIQUE: Ez. Ea... Beharbada, ez naiz ondo hasi. Ez, ondo hasi naiz. Horrek garbi egon behar zuen... kontatu behar dizuedana baino lehen... Egia esan, ez dakit... Tira, berdin dio. Iaz, andreagandik banandu nintzen. Ez nuen espero. Ez nuen inola ere espero. Eta depresioak jo ninduen.

CARLOS: Zer esaten ari zara?

MERCEDES: Utziozu.

(...)

FERNANDO: Barka, baina istorio polit horrekin jarraitu baino lehen, esango al diguzu zer dela-eta psikodrama hau orain? Geure burua kokatzearen, gehienbat.

ENRIQUE: Berehala jakingo duzu. Lehenago, beste zerbait kontatu nahi dizuet. Ezagutzen al duzue txat-en mundua? Internet eta hori guztia... Ba, hor sartzen hasi nintzen. Norbaitekin hitz egitearren. Egun batean, neska batekin gelditu nintzen. Txat-eko batekin, esan nahi dut.

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

Elkartu ginen egun batean, kafe bat hartzera joan ginen, eta oso ondo... Zera zen... Oso polita zen. Hitz egin genuen. Nik, aspalditik, ezin nuen inorekin hitz egin. Berrero gelditu ginen beste egun batean, eta nire etxera eraman nuen. Ni nengoen... Zera egiteko gogoia nuen... Ez da zera egiteko gogoia nuela... Esan nahi dudana zera da, lur jota nengoela. Etxera iritsi ginenean, pistola bat atera zuen eta mehatxu egin zidan.

MERCEDES: Pistola bat?

ENRIQUE: Bai, eta orduan gizon bat etorri zen. Etxean neukan guztia lapurtu zidaten.

CARLOS: Adarra jotzen ari zara, ezta?

FERNANDO: Aspalditik.

ENRIQUE: Gero, kutxazain pare batera eraman ninduten, eta ahal izan zuten guztia atera zuten txarteletatik. Lehen aldia da hori kontatzen dudana, ze nahi dut zuek ulertzea hori izan zela akabera eman zidana. Hortik aurrera, kontrola galdu nuen.

FERNANDO: Kontrola galdu, zerena? Zer arraioz ari da?

CARLOS: Nik ba al dakit!

ENRIQUE: Hasi nintzen gaizki sentitzen. Sendagileak baja eman nahi zidan, baina nik ez nuen hartu nahi izan. Atzerrian fabrika bat zabaldu behar genuen laster, eta nik bi urtez lanean ari nintzen merkatu berria zabaltzeko... zerean... atzerriko herrialde horretan. Kontua da beharbada hobe nuela sendagileari kasu egin banio, ze nire errendimenduak behera egin zuen, erabaki batzuk hartu nituen... erabaki asko hartu behar nituen, aurrekontua inbertitu behar nuen... Denak presaka zebiltzan, eta zuzendaritzak konfiantza zuen nigan... Huts egin nuen. Tokiko enpresa batekin elkartu nintzen eta... bueno, ez zen atera aurreikusita zegoen bezain ondo. Uste nuen lanean zentratzeak lagunduko zidala nire arazo pertsonalak gainditzeko, baina ez. Okerrera egin zuen. Eta, hala, orain badirudi nahiko zaila dela egoera konpontzea, eta enpresa zera pentsatzen ari da... Nik, orain arte, beste proiektu batzuetan oso emaitza onak lortu ditut, eta nire balio profesionalean ez dago zalantzarik; behintzat, hori esaten dute haiek, baina gauzak joan diren bezala joan dira, eta ez da harrizkoa, egoera horretan, nire nagusiek nire etorkizunari buruz erabaki bat hartu beharra izatea. Eta, orain, interesatzen zaizuenera iritsiko naiz. Zera eskatu didate, zeuek hartzea erabaki hori; alegia, pentsa dezazuela nire enpresa bazinete bezala. Erabaki behar duzue ea atzerriko proiektuan jarraitu behar dudan, beste lan-lerro bat emango didazuen edo, besterik gabe, baztertu egingo nauzuen, kaleratu alegia.

CARLOS: Guk?

ENRIQUE: Bai.

MERCEDES: Hori eskatu dizute?

ENRIQUE: Bai.

CARLOS: Baina, kasu teoriko bat da ala erreal?

ENRIQUE: Zer alde dago?

**2. ATALA - Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.**

a) Federico García Lorca. *Bernarda Albaren etxea*.

'Emakume bakartien artean'. *Babelia*, Marcos Ordóñez 09/05/2009

[https://elpais.com/diario/2009/05/09/babelia/1241823974\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2009/05/09/babelia/1241823974_850215.html)

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**



Argazkia (David Ruano): <https://www.tnc.cat/es/la-casa-de-bernarda-alba>

[...] badirudi Lluís Pasqualen TNCKo muntaketak B aukera hautatu duela: Bernarda (Nuria Espert) boterea galtzen, pitzatzen, hasi da. Ez da tradizioak ohituak gaituen betiko Bernarda. Ez da mari-gizon bat, ez da egur lehor bat, ez da atso nazkagarri bat. Emakume erakargarria da oraindik, dotorea, ia hegoaldeko dama handi bat da, eta aurpegian margotuta darama oraindik desioaren itzala, nolabait esatearren. [...] Espert-ek ez du Bernarda tragiko bat egiten, naturalista baizik, Lorcak eskatu bezala ("errealismoa, errealismo hutsa!"), oso neurritsua eta, batez ere, kontraesankorra. [...] Sardá xeblebre dago, bizi, konplexu, herri-maltzurkeriaren eta gaiztakeria sakonaren artean. Bainaren bat jartzearen: imintzio gehiegi egiten ditu, eta ez du behar. [...] Almudena Lomba, ia hasiberri bat, Adela da, eta funtzioaren ustekabea da. Ez du oso teknika zehatza, baina egia fresko eta gorakorra dario, eta badaki bere eszena giltzarriaren intentsitatera iristen [...]. Pasqualen lorpenen artean, beraz, Bernardaren eta María Josefaren planteamendu berriak, Esperten eta Sardáren elkarrizketa bikainak, non kimika perfektua erakusten baitute, eta Almudena Lombaren aldeko apustua, eta azken eztanda txit konplexuaren txirikordatzea, zeinaren atariko afari hura baita, ia western-antza duena, indiarren erasoaren aurretik izan ohi den barealdi urduriarekin. Hala ere, bada funtzioan zerbait oraindik zertu gabe dagoena. Nire ustez, Paco Azorínen eszenografiagatik da, eta korridorearen antolaeragatik, harmailez osatua baitago. Beti presente dagoen zuriak azuleju-gaindosi bat sortzen du, umezurztegi- edo eroetxe-itxura ematen diona. Edo autopsia-gelaren itxura. Ez da bero itogarria sentitzen, alderantziz baizik: hozkirri dagoela ematen du. Eta korridoreak, nire gusturako, tentsioa sakabanatzen du (han pasaeran gertatuko balira bezala, etxeko beste leku batzuetarako bidean), bai eta ahotsaren proiektzioa ere: hainbeste biratzerekin, galdu egiten dira esaldiak, eta, beldur naiz, emozioak ere bai.

AUTOREA: Federico García Lorca. ZUZENDARITZA: Lluís Pasqual. EKOIZPENA: Teatre Nacional de Catalunya. AKTOREAK: Nuria Espert, Núria Espert, Teresa Lozano, Rosa Vila, Marta Marco, Nora Navas, Rebeca Valls, Almudena Lomba, Rosa Maria Sardà, Tilda Espluga, Marta Martorell.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2022ko EZOHIOA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2022

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

ESZENOGRAFIA: Paco Azorín. JANTZITERIA: Isidre Prunés. SOINUA: Roc Mateu.  
ARGIZTAPENA: Maria Domènech. MUSIKA: Josep M. Arrizabalaga

## 2. ATALA - Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

b) Patxo Telleria. *Pankreas*.

'Parodia errimatu bikaina'. Victor Iriarte Ruiz, *Aquí muere hasta el apuntador*, 2016.

<https://aquimuerehastaelpuntador.es/2016/02/critica-de-teatro-de-victor-iriarte-en-diario-de-noticias-de-pancreas-de-patxo-telleria-en-el-teatro-gayarre/>



Argazkia: <https://cdn.mcu.es/espectaculo/pancreas/>

Pankrea transplantatzea lortzen ez badu bi hilten buruan hilko den pertsona baten etxe apaingabea gertatzen da ekintza. Han, bi lagun onenak etorri zaizkio bisitan; burutik eginda daude (terapia batean ezagutu zituen), eta janzkera bera dute: trajea eta onddo-kapela (beste pista bat). Eszenografiak eta figurinek, bai eta argiztapen ez-errealistak ere, puntu gotiko bat dute, B serieko beldurrezko film batekoa bezala; muntaketa osoak bikain lortzen duen parodia-tonua da, Juan Carlos Rubiok oso ondo ulertu eta zuzendua.

Lagunetako batek 59 urte ditu, eta aitortu zuen 60 urterekin bere buruaz beste egingo zuela zahartzaroko gainbehera ez arrastatzeko. Hirugarrenak bere buruaz beste egitea aurreratzeko proposatu dio, gaixo dagoen laguna salbatzeko, eta, ondorioz, gaixoa haserretu egin da. Eta piztu da gatazka. Lehen danbatekoa: Raúlek, suizidak (José Pedro Carrión), beldurtuta baina koherentea, pilula hilgarria hartu du. Bigarren bira traman: Zesarrek, gaixoak (Fernando Cayo), aitortu dio orduan Javilori (Alfonso Lara) eritasuna simulatu zuela. Hirugarren kolpea: pilulak ez du eraginik... Ikusleak ez ditu begiak kliskatu ere egiten gertaeren segida azkarraren aurrean.

Hiru aktoreak bikainak dira, eta beren roletan ezin hobeki aritzen dira. Esanahi eta asmo osoa ematen diete beren esaldiei, bertsoaren musikaltasuna galdu gabe, eta, tarteka, ikuslea errimaz ahaztea lortzen dute. Bikain kantatzen dute, gainera. Elkarrizketei ematen dieten tonu pixka bat artifizial eta kadentziatsua (hori ere koherentea da amaiera ezagutzen duzunean) bereziki dibertigarria da neurritz gaineko "albo-hizketetan", eta une barregarriak lortzen dituzte. Azkenean, argitara ateratzen denean zer gertatu zen, non eta zergatik dauden han, besaulki-patioak eztanda egiten du txalo-zaparrada merezi batean.

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

Gayarre antzokia, 2016ko otsailaren 14an. EKOIZPENA: Centro Dramático Nacional eta Concha Busto (Madril). AUTOREA: Patxo Telleria. AKTOREAK: José Pedro Carrión, Fernando Cayo eta Alfonso Lara. ZUZENDARITZA: Juan Carlos Rubio. ESZENOGRAFIA: José Luis Raymond.

**APARTADO 1. Comentario y análisis.**

a) Sófocles. *Antígona*.

CREONTE (*a Antígona*): Y tú, tú que inclinas al suelo tu rostro, ¿confirmas o desmientes haber hecho esto?

ANTÍGONA: Lo confirmo, sí; yo lo hice, y no lo niego.

CREONTE. (*Al guardián.*): Tú puedes irte a dónde quieras, ya del peso de mi inculpación. (*Sale el guardián.*)

Pero tú (*a Antígona*) dime brevemente, sin extenderte; ¿sabías que estaba decretado no hacer esto?

ANTÍGONA: Sí, lo sabía: ¿cómo no iba a saberlo? Todo el mundo lo sabe.

CREONTE: Y, así y todo, ¿te atreviste a pasar por encima de la ley?

ANTÍGONA: No era Zeus quien me la había decretado, ni Díkē, compañera de los dioses subterráneos, perfiló nunca entre los hombres leyes de este tipo. Y no creía yo que tus decretos tuvieran tanta fuerza como para permitir que solo un hombre pueda saltar por encima de las leyes no escritas, inmutables, de los dioses: su vigencia no es de hoy ni de ayer, sino de siempre, y nadie sabe cuándo fue que aparecieron. No iba yo a atraerme el castigo de los dioses por temor a lo que pudiera pensar alguien: ya veía, ya, mi muerte –y cómo no?–, aunque tú no hubieses decretado nada; y, si muero antes de tiempo, yo digo que es ganancia: quien, como yo, entre tantos males vive, ¿no sale acaso ganando con su muerte? Y así, no es, no desgracia, para mí, tener este destino; y en cambio, si el cadáver de un hijo de mi madre estuviera insepulto y yo lo aguantara, entonces, eso sí me sería doloroso; lo otro, en cambio, no me es doloroso: puede que a ti te parezca que obré como una loca, pero, poco más o menos, es a un loco a quien doy cuenta de mi locura.

CORO: Muestra la joven fiera audacia, hija de un padre fiero: no sabe ceder al infortunio.

CREONTE (*Al coro.*): Sí, pero sepas que los más inflexibles pensamientos son los más prestos a caer: Pues el hierro que, una vez cocido, el fuego hace fortísimo y muy duro, a menudo verás cómo se resquebraja, lleno de hendiduras; sé de fogosos caballos que una pequeña brida ha domado; no cuadra la arrogancia al que es esclavo del vecino; y ella se daba perfecta cuenta de la suya, al transgredir las leyes establecidas; y, después de hacerlo, otra nueva arrogancia: ufanarse y mostrar alegría por haberlo hecho. En verdad que el hombre no soy yo, que el hombre es ella si ante esto no siente el peso de la autoridad; pero, por muy de sangre de mi hermana que sea, aunque sea más de mi sangre que todo el Zeus que preside mi hogar, ni ella ni su hermana podrán escapar de muerte infamante, porque a su hermana también la acuso de haber tenido parte en la decisión de sepultarle.

(...)

ANTÍGONA: Ya me tienes: ¿buscas aún algo más que mi muerte?

CREONTE: Por mi parte, nada más; con tener esto, lo tengo ya todo.

ANTÍGONA: ¿Qué esperas, pues? A mí, tus palabras ni me placen ni podrían nunca llegar a complacerme; y las mías también a ti te son desagradables. De todos modos, ¿cómo podía alcanzar más gloriosa gloria que enterrando a mi hermano? Todos éstos, te dirían que mi acción les agrada, si el miedo no les tuviera cerrada la boca; pero la tiranía tiene, entre otras muchas ventajas, la de poder hacer y decir lo que le venga en gana.

**APARTADO 1. Comentario y análisis.**

b) Jordi Galcerán. El método Gronhölm.

(...)

*(Enrique aún tiene las manos en la cabeza. Parece muy preocupado.)*

ENRIQUE: No lo sé.

CARLOS: ¿Qué ponía en el papel?

ENRIQUE: Me piden... No sé qué tengo que hacer...

MERCEDES: ¿No lo sabes? ¿No lo has entendido?

ENRIQUE: Sí, sí que lo he entendido.

CARLOS: ¿Y qué?

ENRIQUE: Venga, intentaré... Intentaré explicarlo bien.

*(Una pequeña pausa)*

Yo creo que en una empresa lo más importante es obtener resultados y eso está por encima de cualquier otra consideración.

CARLOS: ¿Y?

ENRIQUE: Pero, al mismo tiempo, creo que en las grandes empresas, en las buenas empresas, también se tiene que velar para lograr una dimensión humana, para conseguir que los empleados se sientan orgullosos de trabajar en ella. Esto es lo que yo creo.

*(Unos segundos de silencio.)*

FERNANDO: Estoy completamente de acuerdo. Y, además, cuando una empresa sabe tener en cuenta el bienestar de los empleados esto se refleja en unos mejores resultados.

ENRIQUE: Déjame terminar, por favor.

FERNANDO: Pensaba que ya estabas y que teníamos que comentar.

ENRIQUE: No. A ver... Quizá no he comenzado bien. No, sí que he comenzado bien. Esto tenía que quedar claro antes que... Lo que os voy a contar... La verdad es que no sé... Bueno, es igual. El año pasado me separé de mi mujer. No me lo esperaba. No me lo esperaba en absoluto. Y entré en una depresión.

CARLOS: ¿Qué dices?

MERCEDES: Déjale.

(...)

FERNANDO: Perdona, pero antes de que continúes esta bonita historia, ¿nos podrías decir a qué viene este psicodrama, para situarnos, más que nada?

ENRIQUE: Enseguida lo sabrás. Antes os quiero contar otra cosa. ¿Conocéis el mundo de los chats? Internet y todo esto... Bien, empecé a meterme. Para hablar con alguien. Un día quedé con una chica. Del chat, quiero decir. Nos vimos un día, fuimos a hacer un café y muy bien... Era... Era muy guapa. Hablamos. Yo, hacía tiempo que no podía hablar con nadie. Volvimos a quedar otro día y la llevé a mi casa. Yo estaba... Tenía ganas de... No es que tuviera ganas de... Lo que quiero decir es que estaba hecho polvo. Cuando llegamos al piso, sacó una pistola y me amenazó.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2022ko EZOHIOA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2022

**ARTE ESZENIKOAK**

**ARTES ESCÉNICAS**

MERCEDES: ¿Una pistola?

ENRIQUE: Sí, y entonces vino un hombre. Me robaron todo lo que tenía en casa.

CARLOS: ¿Nos tomas el pelo, no?

FERNANDO: Hace rato.

ENRIQUE: Luego me llevaron a un par de cajeros y sacaron todo lo que pudieron de las tarjetas. Es la primera vez que lo cuento, porque quiero que entendáis que creo que fue esto lo que terminó de rematarme. A partir de aquí, perdí el control.

FERNANDO: Perdiste el control, ¿de qué? ¿De qué coño habla?

CARLOS: ¿Y yo qué sé?

ENRIQUE: Comencé a encontrarme mal. El médico me quería dar la baja, pero yo no la quise coger. Estábamos a punto de abrir una fábrica en el extranjero y yo llevaba dos años trabajando en la apertura del nuevo mercado en.... en este país extranjero. El caso es que quizá tendría que haber hecho caso al médico porque mi rendimiento bajó, lo reconozco, tomé decisiones... tenía que tomar muchas decisiones, tenía que invertir el presupuesto en... Todo el mundo tenía prisa y la dirección confiaba en mí... Me equivoqué. Me asocié con una empresa local y.... bueno, la cosa no fue tan bien como estaba previsto. Yo creía que, si me centraba en el trabajo, esto me ayudaría a superar mis problemas personales, pero no. Fue a peor. Total, que ahora parece bastante difícil enderezar la situación y la empresa está pensando en... Yo, hasta ahora, en otros proyectos he conseguido muy buenos resultados y mi valía Profesional está fuera de toda duda, al menos esto es lo que dicen ellos, pero las cosas han ido como han ido y es natural que, ante esta situación, mis jefes tengan que tomar una decisión sobre mí, sobre mi futuro. Y ahora llego a lo que os interesa. Lo que me han pedido es que seáis vosotros quienes toméis esta decisión, que penséis como si fuerais mi empresa. Tenéis que decidir si continúo en el proyecto del extranjero, si me asignáis una nueva línea de trabajo o si, sencillamente, prescindís de mí, me despedís.

CARLOS: ¿Nosotros?

ENRIQUE: Sí.

MERCEDES: ¿Esto es lo que te han pedido?

ENRIQUE: Sí.

CARLOS: Pero, ¿es un caso teórico o real?

ENRIQUE: ¿Qué diferencia hay?

## APARTADO 2. Comentario de un texto de teoría o crítica escénica.

a) Federico García Lorca. *La casa de Bernarda Alba*.

‘Entre mujeres solas.’ Babelia, Marcos Ordóñez 09/05/2009

[https://elpais.com/diario/2009/05/09/babelia/1241823974\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2009/05/09/babelia/1241823974_850215.html)



Fotografía (David Ruano): <https://www.tnc.cat/es/la-casa-de-bernarda-alba>

